



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa


Baserriko emakumeak

EAEko biztanleriaren %89 hiriguneetan bizi da, lurralde zoruaaren %12 okupatuz eta 100%aren antolaketa izpiritua gobernatuz. Aipaturikoak Lisipek argitaratutako “Lur ganean, itzal azpian” (2022) liburuan jasotako datuak dira. Jaki-na da lurraldean hiria nagusi dela, nahiz eta euskal identitatearen postala egiterakoan berdetasuna erakusten dugun, nahiz eta jai giroan tradizio eta folkloreari etekina ateratzen diogun, landa herritarren irudi erromantizatu bat helaraziz. Hiriak badaki hiria ez diren beste lur horiek elikatzen gaituztela, arnasten dugun airea garbitzen dutela, eta zeinen garrantzitsua den hiriaren inguruko beste lur hori, gure osasuna mantentzeko. Baina ezjakintasun handia dago lurra erein eta mantentzen duten heroi handi hauen bizitzaren nolakotasunaren inguruan, eta batez ere, hiriak eragiten dizkion zailtasunen inguruan. Landa eremuan bizi diren hiritar asko ere badaude, hiritar bizimodua hirietatik urruti eginez. Baina zer dakigu luraren ekonomiatik bizi diren horietaz, baserritarrez? Eta nekazaritza eta landako bizitza arrotza bazaigu, nolakoa da baserritar emakumeenganako gerturatzea hiritik?

Aipatutako liburuaren egileak, Leire Milikuak, ikerlan paregabea burutu du hiritarroi egotzaren berri emateko. Ariketa bat proposatzen digu lehen orrialdeetan: zein hiru hitz lotzen ditugun baserriko emakumearekin. Ezezaguna izateagatik, klixe askorekin lotzen ditugu baserriko pertsonaiak, euskal zinema garai-kidea horietaz jardun denean ere, zaharkitutako irudi-asoziazioekin jardun izan da, errealitatetik urruti, liburuko datuen esanetan. Irudia berrikustea behar-beharrezkoa da, lurraldean merezi duten lekua eman nahi badiugu. Baserriko emakume asko gazteak dira, goi ikasketak burutu dituzte, ez dute irudi basati edo indartsurik eta takoiekin dantzatzaren dakite, katiuskak darabiltzaten arren. Eta badakite

barazki-dendan azalore edo sagar fresko bat freskoa ez den barazki edo frutatik bereizten. Baserritik bizia egiteko hautua karga sinbolikoz jantzia dago oraindik; irabazi gutxikoa eta gogorra da, eta glamour gutxirekin begiratzen zaio. Bizianbizioetan atzerapauso bat denaren edo bestelako eginkizun intelektualagoetan bizi esperientzia aberasgarriagoa lortuko dugunaren falazia oso errotuta daukagu, hiritik eraikitako irudikapena. Ulermen hauetan klasismo asko dago, baina errealitate gordin baten ispilu ere bada: lehen sektorea ez da inondik ere hiriaren lehentasunezko lurraldea, eta ez dugu hiriaren baratzea zaintzen. Ez zerbitzuetan, ez dirulaguntzetan, ez baliabideetan, ezta kulturalki ere.

Baserritar emakumeen kasuan, hiritar emakumearen zailtasun berdinei, hiritarrak landarekiko duen ulermen gutxiespena gaineratu behar zaio. Asko kosta zaio baserritar emakumeari bere lan produktiboaren profesionaltasuna onartua izatea; juridikoki ere, orain dela oso gutxira arte ez zegoen profesionala izateko aukerarik. Erabaki mahaietan ere bere presentzia garaikidea da. Horregatik, urriak 8, Landa Emakumeen Eguna. Zuengatik. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA